



*Bigarren Lehendakarioordea eta Ekonomia, Lan eta Enpleguko sailburua
Vicepresidente Segundo y consejero de Economía, Trabajo y Empleo*

AGINDUA, 2026ko MARTXOAREN 5koa, BIGARREN LEHENDAKARIORDE ETA EKONOMIA, LAN ETA ENPLEGUKO SAILBURUARENA. HONEN BIDEZ BERMATZEN DA EUSKO JAURLARITZAKO HEZKUNTZA SAILAREN MENDEKO ZUZENeko KUDEAKETAKO ESKOLA-JANTOKIETAKO KOLEKTIBITATE-ENPRESEK KOMUNITATEARI EMATEN DIZKIOTEN FUNTSEZKO ZERBITZUEI EUTSIKO ZAIELA 2026KO MARTXOAREN 10, 11 ETA 12RAKO DEITUTAKO GREBAN.

LAB sindikatuak greba deitu du 2026ko martxoaren 10, 11 eta 12rako; martxoaren 10ean hasiko da, 0:00etan, eta martxoaren 12an amaituko da, 23:59an, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren mendeko zuzeneko kudeaketako eskola-jantokietan kolektibitate-enpresatan lan egiten duten langileentzat.

Bestalde, ELA sindikatuak greba deitu du 2026ko martxoaren 10, 11 eta 12an, lanaldi osoan, Hezkuntza Sailari lotutako jantokietarako zerbitzuak ematen dituzten enpresetako langileentzat, Eusko Jaurlaritzaren zuzeneko kudeaketako araubidean (Eurest, Gastronomía Baska, Gastronomía Cantábrica, Gupo Ausolan, Mediterránea de Catering, Tamar, Serunion eta Aibak).

Greba-deialdiaren helburua Lan Agintaritzari bidalitako jakinarazpenean dago jasota. Jakinarazpen hori hasitako espedientean dago.

Espainiako Konstituzioaren 28.2 artikulua langileen greba egiteko eskubidea onartzen du, langileek beren interesak defenda ditzaten, horixe baita egungo zuzenbide estatu sozial eta demokratikoak oinarri dituen funtsezko eskubideetako bat. Konstituzioak, beraz, berdin babesten ditu greba-eskubidea eta beste zenbait eskubide garrantzitsu, hala nola bizia, osotasun fisikoa eta osasuna. Hain zuzen, Konstituzioak bete-betean babesten ditu, bai eskubide horiek guztiak, baita greba egiteko eskubidea ere.

Beraz, greba egiteko eskubidea erabiltzeak talka egin dezakeenez herritarren gainerako oinarrizko eskubideekin, Konstituzioaren 28. eta 37. artikuluetan xedatutakoarekin bat etorriz, ezinbestekoa da neurri egokiak hartzea komunitatearentzako funtsezko zerbitzuei eutsiko zaiela ziurtatzeko, ez dadin edukirik gabe geratu gatazkan dauden oinarrizko eskubideetako bat bera ere.

Argi dago oinarrizko eskubideak murrizten dituen edozein neurriren konstituzionaltasuna proportzionaltasun-printzipioak zehaztu behar duela, eta printzipio hori gainditu egiten dela neurriak Konstituzio Auzitegiak ezarritako hiru betekizun edo baldintza betetzen ez baditu (122/1990 KAE, 123/1990 KAE, 8/1992 KAE eta 123/2003 KAE):

1. Egokitasun-judizioa. Haren aplikazioak proposatutako helburua lor dezake.
2. Premia-judizioa. Egoera ikusita, ez dagoela neurri egokiagorik eraginkortasun bereko helburu hori lortzeko.
3. Proporzionaltasun-judizioa. Emandako neurria edo konponbidea haztatua edo orekatua izatea, haren aplikaziotik interes orokorrerako onura edo abantaila gehiago eratorzen direlako gatazkan dauden beste ondasun edo balore batzuei kalteak baino.

Gizartearentzako ezinbesteko zerbitzuak ematen direla ziurtatzeak muga bat dakar greba-eskubidea egikaritzeko; hori dela eta, beharrezkoa eta ezinbestekoa da jokoan dauden interesen artean haztapan bat ezartzea. Hala, grebalarien eskubidea mugatu egin beharko da – amore eman beharko du, Konstituzio Auzitegiaren hitzetan –, baldin eta grebaren bidez beren interesak defendatzeak kalte larriagoa eragiten badio edo eragin badietzaioke funtsezko zerbitzua emateko eskubidearen hartzaileari edo titularrari, beren aldarrikapenen edo asmoen arrakastarik ezak baino. Horretarako, hizpide dugun greba-deialdiaren ezaugarri zehatzak hartu beharko dira kontuan.

Funtzio-eremuari dagokionez, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren mendeko zuzeneko kudeaketako eskola-jantokietarako zerbitzuak ematen dituzten kolektibitate-enpresetako langileei eragiten die grebak.

Denbora-eremuari dagokionez, 2026ko martxoaren 10etik 12ra bitartean deitutako greba da, hau da, elkarren segidako hiru egun osokoa da greba. Deialdi horien aurretik, gainera, beste greba-deialdi bat egin zen, duela gutxi, 2026ko otsailaren 24an, 25ean eta 26an.

Eskola-jantokiei dagokionez, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak emandako azken datuen arabera, greba-deialdiak kalte larriak eragin diezazkieke 83.133 ikasleri, hezkuntza-maila guztietan, Haur Hezkuntzatik Bigarren Hezkuntzaraino, 563 jantokietan banatuta. Grebaren deitzaileek emandako datuen arabera, gutxi gorabehera 5.000 langilek prestatzen dituzte zerbitzuak jantokietan.

Bestalde, besteak beste, bizitzeko, osotasun fisiko eta moralerako, hezkuntzarako eta lanerako eskubide konstituzionalak, Konstituzioaren 15, 27 eta 35.1 artikuluetan eta Haurren Eskubideei buruzko Konbentzioaren 18. artikuluan jasotzen dira. Espainiako Estatuak honen bidez berretsi zuen: 1990eko azaroaren 30eko berrespen-agiria, Haurren Eskubideei buruzko 1989ko azaroaren 20ko Konbentzioarena, Nazio Batuen Batzar Nagusiak onartua. Botere publikoek bermatu behar dituzte eskubide horiek, prebentzio-neurrien eta beharrezko zerbitzuak emango direla ziurtatzeko neurrien bidez, eta, beraz, grebarako eskubidearen bidezko egikaritzaren aurrean ezin dira babes egokirik gabe geratu. Babes horrek, bestalde, ezin du inola ere greba-eskubidea edukiz hustu, Konstituzio Auzitegiaren doktrinari jarraikiz beraren aplikazioa betiere mugatua izan behar baita.

Eskola-jantokien zerbitzua funtsezkoa da, ukitutako eskubideak ere funtsezkoak direlako —hezkuntza eta haurren eta nerabeen babes eta garapen integralarekin zerikusia duten eskubideak—. Horrela jasotzen da Estatuaren araudian: 1/1996 Lege Organikoa, urtarrilaren 15ekoa, Adingabearen Babes Juridikoari buruzkoa eta Kode Zibila eta Prozedura Zibilaren Legea partzialki aldatzen dituena. Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan, berriz, hemen jasotzen da: 3/2005 Legea, otsailaren 18koa, Haurrak eta Nerabeak Zaintzeko eta Babestekoa. Jurisprudentziak berretsitako alderdiak, Auzitegi Gorenaren aurreko aginduetan behin eta berriz adierazitakoak: Auzitegi Gorenaren 1994ko maiatzaren 20ko epaia, eta Auzitegi Gorenaren 2009ko apirilaren 14ko epaia. Epai horietako lehenak honako hau ezartzen du: «ikasleei eguerdian bazkaria erabat kentzeak osasunerako eta hezkuntzarako eskubide konstituzionalak urratzen ditu». Era berean, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiak, lurralde-deialdien aurrean, funtsezko izaera hori aitortu du (ikusi 2010eko abenduaren 22ko eta 2011ko urtarrilaren 13ko epaiak).

Gutxieneko zerbitzuak zehaztean, honako hauek haztatu beharko dira: eskola-jantokien izaera sozioedukatiboa, ; jantokirik gabe geratzen diren ikasleek behar duten arreta integrala, grebaren lurraldetasuna (horrek Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren mendeko zuzeneko kudeaketako eskola-jantokiak dituzten ikastetxe guztiei eragiten die) eta denbora-eremua (ondo ondo hiru lanaldi).

Kontuan hartu beharreko beste kontu bat da deialdia ohiko lanaldian egiten dela, eta horietan ikasleen ohiko bertaratzea aurreikus daitekeela, beste lanaldietan ez bezala, horietan hezkuntzako profesionalen grebak edo greba orokorrak egiten baitira.

Kontuan hartu behar dira, halaber, aurreko deialdietan emandako aginduak eta horiei buruz emandako ebazpen judizialak. Gutxieneko gainerako zerbitzuei dagokionez, 2019ko martxoaren 13ko Aginduan ezarri zirenak ezarri dira. Gutxieneko zerbitzu horiek Eusko Jaurlaritzaren mendeko zuzeneko kudeaketako eskola-jantokietan zerbitzuak ematen dituzten kolektibitate-enpresetan 2019ko martxoaren 20an, 21ean eta 22an deitutako grebaren ondorioz ezarritakoak dira. Ondoren, 2020ko irailaren 14ko Agindua eman zen, 2020ko irailaren 15erako deitutako unibertsitatez kanpoko euskal hezkuntza-sistemaren greba orokorrean gutxieneko zerbitzuak ezartzeko, eta 2020ko urriaren 20ko Agindua, 2020ko urriaren 21ean, 27an eta 29an deitutako grebarako, ikastetxe publikoetako eta itunpeko ikastetxeetako jantokietako enpresa azpi kontratistek ematen dituzten zerbitzuetarako. Eskola-jantokiei dagokionez, bi aginduetan orain arteko gutxieneko zerbitzu berberak ezarri ziren, COVIDaren egoeratik garbiketari dagokiona izan ezik. Bi Aginduen aurka errekurtsioa jarri zen Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusian (administrazioarekiko auzi-errekurtsioen zk.: 925/2020 eta 1035/2020, hurrenez hurren) eta, bietan, administrazioarekiko auzien salak ezetsi egien zituen 2021eko martxoaren 2ko 93/2021 eta 2021eko martxoaren 26ko 126/2021 epaien bidez aurkeztutako errekurtsioak, zeinetan adierazi zuen eskola-jantokietarako ezarritako gutxieneko zerbitzuak zuzenbidearen araberrakoak zirela.

Bai EAEko gizarte-ekimeneko hezkuntza-sektorean 2024an eta duela gutxi 2026an deitutako grebetan, bai sukaldaritza-eta garbiketa-zerbitzua ematen duten Hezkuntza Saileko lan-kontratudun langileentzat deitutako grebetan, 2022an eta 2023an, zenbait agindu eman dira agindu honetan finkatzen diren gutxieneko zerbitzu berdinak edo antzekoak ezartzeko.

Azkenik, Bizkaiko ostalaritzaren sektorean 2023an eta Gipuzkoakoan 2024an deitutako grebetan ere jardun da eskola-jantoki publiko zein pribatuetan zerbitzuak ematen dituzten kolektibitate-enpresei eraginez.

Deialdi horiek guztiek antzekotasunak dituzte hizpide dugunarekin, bai lurralde- eta denbora-eremuan, bai eragindako pertsonen kolektiboetako enpresei, grebarekin bat egin duten pertsonetako eta ikasleei dagokienez, eta deialdi horietarako emandako aginduak gutxieneko zerbitzuak finkatzeko premisa juridikoa ez badira ere, aurrekari horiek aukera ematen dute egiaztatzeko deialdi horietako gutxieneko zerbitzuek ezarritako babesek Konstituzioak babesten dituen eskubide eta ondasunetan —grebarakoa barne— eragin dituzten ondorio positiboak edo negatiboak, agindu honek babestu nahi dituenak. Horregatik, Agindu honek eutsi egiten die orduan emandako gutxieneko zerbitzuei. Eta kontuan hartu behar dira denboran zehar gertatzen diren bat ez etortzeak, agindua idatzita zegoen moduan bete ez dela baieztatzea ahalbidetzen dutenak, eta horrek alderdi argigarriak eta aurreko aginduez bestelakoak sartzera behartzen gaitu, eta, bereziki, aurtengo otsailaren 19ko Aginduaz.

Eskola-jantokietan ematen diren zerbitzuak honako hauek dira: batetik, menuak egitea, banatzea eta officea (jantokia muntatzea, mahaiak jasotzea eta garbitzea); eta, bestetik, jantokiko begiraleen zerbitzua, adingabeei arreta eta zaintza ematen diena goizeko eskolak amaitzen direnetik arratsaldeko eskolak hasten diren arte.

Zeregin horiek hainbat langilek egiten dituzte, hezkuntza-maila guztietarako, baina begirale-taldean aldeak daude ikasleek beren adinaren arabera behar duten arreta-mailaren arabera (zenbat eta adin txikiagoa izan, orduan eta arreta eta laguntza handiagoa behar dute) edo beste egoera batzuen arabera, hala nola hezkuntza berezia. Azken hauek integratzeko, hezkuntza bereziko ikasgela egonkorak nahiz gela "arruntak" daude, eta, horietan, egoera bereziak direla-eta, desgaitasuna eta mendekotasun-maila handia duten pertsonak eskolatzen dira. Ikasle horiek laguntza orokorra behar dute, eta arreta oso indibidualizatua eta baliabide intentsiboak eta jarraituak behar dituzte; beraz, kontuan hartu behar dira gutxieneko zerbitzuak finkatzean.

Enpresa horietako langileei deitu zitzaizen aurreko grebaren ondorioz (otsaileko azken astean izan zen, eta ondoz ondoko hiru eguni ere eragin zien), 2026ko otsailaren 19ko Agindua eman zen, gutxieneko zerbitzuak ezarri zituena. Bertan adierazten zen ikasle guztientzako hiru jarduera bermatu behar zirela:

- Sukaldeko langileek Elikagaiak prestatu eta banandu behar dituzte.
- Officeko langileek jantokia prestatu eta mahaiak jaso eta garbitu behar dute.
- Begiraleek hurrak zaindu behar dituzte. Kasu horretan, begiraleek eman beharreko gutxieneko zerbitzua Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako lehen mailako eskola-jantokiak erabiltzen dituzten ikasleengan zehazten zen.

Hala ere, herritarrek behin eta berriz aurkeztutako kexen bidez, agintaritzak honek jakin du greban zehar Aginduan ezarritakotik aldentzen diren egoerak gertatu direla, eta, horren ondorioz, kasu batzuetan ez dela jantoki-zerbitzurik eman, begiraleentzako gutxieneko zerbitzuen muga sukaldeko eta officeko gainerako langileei ere aplika dakiekeela iritzita.

Horregatik, beharrezkotzat jotzen da agindu honen idazketa aldatu gabe argitzea sukaldeko langileentzako eta officeko langileentzako gutxieneko zerbitzuak, eta zehaztea pertsona horiek egiten dituzten zereginak grebak eragindako eskola-jantokiak erabiltzen dituzten ikasle guztiei dagozkiela.

Gauzak horrela, eta aurreko deialdiko aginduan bezala, jantoki-zerbitzua bermatuko da eskola-jantokiak erabiltzen dituzten ikasle guztientzat. Erraz egiteko moduko elikagaiak prestatuko dira, seguruak eta alergietara eta intolerantziara egokituak, bai ikastetxeetan bertan, bai ikastetxeek azpikontrataturako enpresen sukalde nagusietan. Azken kasu horretan, bermatu egin beharko da haien banaketa. Menuak seguruak izango dira, eta alergietara eta intolerantziara egokituta egongo dira. Horretarako, egokituz jotzen da greba honetan gutxieneko zerbitzu gisa ezartzea sukaldeko langileen %10 egon behar duela.

Gauza bera gertatu da officeko langileekin ere; beraz, garrantzitsutzat jotzen da argitzea funtzio hori, jantokia prestatzea, mahaiak jasotzea eta garbitzea, eskola-jantokiak erabiltzen dituzten ikasle guztientzat dela. Hala, egokituz jotzen da officeko langileen % 10 ezartzea gutxieneko zerbitzu gisa, aurreko aginduan egin zen bezala.

Era berean, jantokien muntaketa, mahaiak jasotzea eta garbitzea bermatuko da. Zeregin horretarako egokituz jotzen da gutxieneko zerbitzu gisa ezartzea officeko langileen %10 egon behar duela.

Bestalde, begiraleek egiten dituzte zaintza eta laguntza jardueri dagokienean, argi dago funtsezkoa dela bi eta hiru urteko haurren eta premia bereziak dituzten ikasleen jantoki-zerbitzua artatzea; kolektibo bereziki kalteberak dira, eta modu pertsonalizatuan eman behar zaie elikadura espezifiko eta egokia.

Oinarrizko eskubideak bermatzeko gutxieneko zerbitzuak finkatzeko arrazoiak dira: adin txikikoak direla (2 eta 3 urte), autonomia falta dutela eta arreta eta zaintza handia eta integrala eman behar zaiela. Horretarako, begiraleen bertaratzea finkatzen da gutxieneko zerbitzu gisa, bertaratze-ratio hauetan: begirale bat 9 haurreko talde bakoitzeko, 2 urtekoen kasuan, eta begirale bat 15 haurreko talde bakoitzeko, 3 urtekoen kasuan.

Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleei dagokienez, argitu behar da arreta ematea hezkuntza-laguntzako espezialisten eskumena izan daitekeela, ez grebara deitutakoena, edo jantokiko begiraleena; horregatik, pertsona horiei grebara deitutako langileek ematen badiete arreta, haien elikadura-premiak betetzeko ezinbestekoa den gutxieneko begirale-kopurua ezartzen da gutxieneko zerbitzu gisa.

Horren ondorioz, eta kolektibo horiek babesteko, begirale-kategorian gutxieneko zerbitzuak ezarri behar dira, eta, horretarako, langileen lan-kargak eta hurrek merezi duten arreta hartu beharko dira kontuan.

Adingabeak zaintzeko lanak egiten dituzten gainerako begiraleei dagokienez, lehen aipatu dugun grebaren aurreko greba azpimarratu behar dugu. Jasotako kexa ugariak agerian uzten dute ikastetxeen antolamendu-aniztasuna. Hori dela eta, beharrezkoa da enpresei eta langileen legezko ordezkariari antolamendu-gaitasun handiagoa ematea, agindu honetan ezarritako gutxieneko zerbitzuak betez, zerbitzu horiek ikastetxe bakoitzaren errealitatera egokitu ahal izateko.

Eskola-jantokiak ikastetxeetan bertan daude. Greba-kasuetan azken horiekin gertatzen den bezala, grebak irekitzeak behar-beharrezkoak diren «funtzionamendu-errutinak» egitea eskatzen du (gutxieneko zerbitzuen izaera murriztaileak eskatzen ditu), eta horien artean daude horietan ematen diren zaintza funtzioak. Ikastetxe horietara ikasle adingabeak joaten direnez, ezin zaie eskatu adingabeei helduei eskatzen zaien heldutasun-maila bera, eta horren ondorioz, ikastetxearen erantzukizuna ez da erabat baztertzen (2002ko apirilaren 14ko Auzitegi Gorenaren epaia) , arreta berezia eskatzen da saihestu daitezkeen arriskuak ezabatzeko edo, zaintza- eta kontrol-lanen bidez, arrisku horiek murrizteko, haienezko edozein lesio edo kalte saihesteko.

Horregatik, egia bada ere ikasleen autonomiak gora egiten duela adinean aurrera egin ahala, nahikoa izan daiteke higiene- eta osasungarritasun-arauak errespetatzeko otorduak irauten duen bitartean, ezin dira inola ere zaindu gabe geratu jantoki-zerbitzu osoan, ezta patioan edo antzeko lekuetan egoten diren denboran ere, goizeko eskolak amaitzen direnetik arratsaldekoak hasten diren arte.

Hori dela eta, adinagatik edo inguruabarregatik tratamendu berezia duten ikasleentzako kuantifikazio espezifiko bat egitea erabaki dugu, eta begiraleen ehuneko orokor bat ezartzea gainerakoentzat. Horiek ikastetxe bakoitzaren idiosinkrasiaren arabera antolatu behar dira, betiere ikasleen arreta eta zaintza adinaren arabera lehenetsiz.

Puntu honetan, kontuan izan behar da jangelako begiraleek egiten dituzten lanak elikadura hartzeko erabiltzen dena baino gehiago luzatzen direla denboran. Horrela, eskola-jantokiak erabiltzen dituzten ikasleak zaintzeko lanak egiten dituzte goizeko eskolak amaitzen direnetik arratsaldeko eskolak berriz hasi arte, jolastokian egonaldi luzea eginez.

Aurrekoarekin bat etorritik, gainerako hezkuntza-etapetako eskola-jantokiak erabiltzen dituzten ikasleen zaintza- eta jagoletza-eginkizunak betetzen direla bermatzeko, gutxieneko zerbitzuak ezarri beharko dira begiraleen kategorian, eta begiraleen % 15en baliokidea den ehunekoa ezarri beharko da.

Gobernu Agintaritzari gai honetan eskumen eskusiboa esleitzeak bermatu nahi du greba-eskubidearen erabilerak izan behar dituen mugak Zuzenbidearen arabera baino ezin izango direla ezarri, oinarrizko beste eskubide batzuk betetzera bideratutako funtsezko zerbitzu jakin batzuei eustearren, eta gobernatzeko erantzukizuna eta ahala duenak bakarrik.

Horregatik, Lan Harremanei buruzko martxoaren 4ko 17/1977 Errege Lege Dekretuaren 10.2 artikuluan aipatzen den prozedura bideratu da, eta entzunaldia eman zaie idatziz alderdi ukituei —sindikatuak, enpresa-elkarteei, enpresei eta Hezkuntza Sailari—, Jaurlaritzaren proposamenaren eragina jasango duten zerbitzuei eta langileei buruzko proposamenak egin ditzaten.

Lan eta Enplegu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen azaroaren 5eko 323/2004ko Dekretuaren 3. artikulua titularrari esleitzen dizkio ekainaren 23ko 18/2024 Dekretuak (Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioako sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardueran arloak finkatzen dituen) lan-legeria betearaztearen arloan bereganatutako eskumenak. Zehazki, 2.j) atalaren arabera, zerbitzu publikoak edo premia bizia eta atzerazina duten zerbitzuak ematen dituzten enpresa, erakunde eta instituzioei eragiten dieten greba-eskubidea egikaritzen den kasuetan, erkidegoaren funtsezko zerbitzuei eutsiko zaiela bermatzeko behar diren bermeak ezartzeko eskumena dagokio, ekainaren 11ko 139/1996 Dekretuak eskuordetutako eskumena.

Horregatik guztiagatik, Bigarren Lehendakariordeak eta Ekonomia, Lan eta Enpleguko Sailburuak, Eusko Jaurlaritzaren ordezkartza hartuta, honako hau

EBAZTEN DU:

LEHENA.- Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren mendeko zuzeneko kudeaketako eskola jantokietako kolektibitate-enpresetan 2026ko martxoaren 10, 11 eta 12rako, lanaldi osoan, zerbitzuak ematen dituzten langileen greba eskubidea baliatzeko, jarraian adierazten diren gutxieneko zerbitzuak mantendu beharko dira:

1.- Jantoki-zerbitzua bermatuko da eskola-jantokiak erabiltzen dituzten ikasle guztientzat: erraz egiteko moduko elikagaiak prestatuko dira, seguruak izan beharko dira eta alergia eta intolerantzia egokituak egon beharko dira, bai ikastetxeetan bertan, bai ukitutako enpresen sukalde nagusietan. Azken kasu horretan, bermatu beharko da janaria ikastetxeetan banatuko dela. Aurreko eginkizunak sukaldeko langileen %10ek beteko dituzte. Baina %10 hori pertsona bat baino gutxiago bada, pertsona horrek gutxieneko zerbitzu horiek egin beharko ditu.

2.- Ikasleei elikadura emateko, erabili eta botatzeko materiala erabiliko da lehenetsuz.

3.- Jantoki-zerbitzua bermatuko da eskola-jantokiak erabiltzen dituzten ikasle guztientzat jantokia prestatuz, mahaiak jasoz eta garbituz. Officeko langileen % 10ek egingo dute garbiketa hori. % 10 pertsona bat baino gutxiago bada, pertsona horrek ezarritako gutxienerako zerbitzua egin beharko du.

4.- Langile horien lanaldian, ikasleei arreta emateko eta jantokiak irekita mantentzeko, goizeko eskolak amaitzen direnetik arratsaldeak hasi arte, begirale kopuru hau ezartzen da, hezkuntza- ziklo eta -etapen arabera:

4.1. Haur Hezkuntzako ikasleak (1. zikloa: 2 eta 3 urte):

- 2 urte dituzten haurren ikasgeletan, begirale bat bederatzita bazkaltiarreko talde bakoitzeko.
- 3 urte dituzten haurren ikasgeletan, begirale bat hamabost bazkaltiarreko talde bakoitzeko.

4.2. Hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleak, halakorik balego: elikadura-premiak betetzeko ezinbestekoa den gutxienerako begirale-kopurua.

4.3 Haur Hezkuntzako (2. zikloa), Lehen Hezkuntzako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleak: Ikastetxeko begiraleen % 15, ikasle gazteenen arretari lehenetsua emanez. % 15 pertsona bat baino gutxiago bada, pertsona horrek ezarritako gutxienerako zerbitzua egin beharko du.

BIGARRENA.- 1. Gerta daiteke gutxienerako zerbitzuak betetzeko garaian greba egitera deitutako langileak eta greba egitera deitu gabekoak elkartzea; kasu horretan, agindu honetan finkatutako ehunekoak kalkulatzeko, ohiko moduan lan horiek betetzen dituzten bi kolektibo horietako langileen guztirakoa hartuko da kontuan. Greba egiteko deitu diren langileen artean, zerbitzu horiek greba ez egitea erabakitzen duten langileek emango dituzte, ahal izanez gero.

2. Langileen ordezkariari entzun eta gero, enpresen zuzendaritzak esleituko ditu langileek bete beharreko eginkizunak. Nolanahi ere, aurreko artikuluan eta indarrean dauden legeetan ezarritako mugak errespetatu beharko ditu.

HIRUGARRENA.- Adierazitako zerbitzuak aldatu ahal izango dira, dagozkion administrazio-izapideak egin ondoren, grebaren iraupenaren arabera edo arrazoi higienikoek, biosanitarioek edo gerora sortutako bestelako aparteko arrazoiek hala eskatzen dutenean.

LAUGARRENA.- Agindu honen aurreko apartatuetan bildutako gutxieneko zerbitzuak ezin izango dira aldatu horiek egiteko izendatuta dauden langileen aldaketen edo lanuzteen ondorioz. Halakorik gertatuz gero, legez kontraktatzat joko dira eta horiek egiten dituztenak izango dira erantzule, eta erantzukizuna eskatuko zaie indarrean dagoen ordenamendu juridikoaren arabera.

BOSGARRENA.- Aurreko artikuluetan xedatutakoa gorabehera, greba egiten duten langileen eskubideak, grebari buruzko araudiak aitortzen dituenak, ez dira inola ere murriztuko, ezta grebarako deia egin dutenen eskakizunen izapidetzea eta ondorioak mugatuko ere.

SEIGARRENA.- Jakinarazten den egunean jarriko da indarrean agindu hau.

ZAZPIGARRENA .- Agindu honen berri eman behar zaie interesdunei, urriaren 1eko 39/2015 Legeak (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak) 40. artikuluan xedatutako moduan; halaber, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluetan aurreikusitakoari jarraiki, agindu honen aurka aukerako berraztertze errekurtsua aurkez daiteke organo honetan, hilabeteko epean agindua jakinarazi eta biharamunetik hasita.

Era berean, ebazpenak administrazio-bidea agortzen duenez, horren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsua jarri ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, ebazpena jakinarazten denetik 2 hilabeteko epean, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legean xedatutakoaren arabera.

Miguel Torres Lorenzo

**BIGARREN LEHENDAKARIORDEA ETA
EKONOMIA, LAN ETA ENPLEGUKO SAILBURUA**